a.3) Bidearen luzera bi kilometrotik gorakoa bada: baso aprobetxamenduetan, 2,08 euro estereoko; beste material batzuen garraioan, 3,15 euro tonako.

b) Harrizko bidea erabiliz gero, tarifa honela kalkulatuko da:

a.1) Bidearen luzera kilometro batetik gorakoa ez bada: baso aprobetxamenduetan, 2,50 euro estereoko; beste material batzuen garraioan, 3,78 euro tonako.

a.2) Bidearen luzera kilometro batetik bi kilometrora artekoa bada: baso aprobetxamenduetan, 3,33 euro estereoko; beste material batzuen garraioan, 5,03 euro tonako.

a.3) Bidearen luzera bi kilometrotik gorakoa bada: baso aprobetxamenduetan, 3,75 euro estereoko; beste material batzuen garraioan, 5,66 euro tonako.

c) Zoladura sendoko bidea erabiliz gero, tarifa honela kalkulatuko da:

a.1) Bidearen luzera kilometro batetik gorakoa ez bada: baso aprobetxamenduetan, 5,38 euro estereoko; beste material batzuen garraioan, 8,13 euro tonako.

a.2) Bidearen luzera kilometro batetik bi kilometrora artekoa bada: baso aprobetxamenduetan, 7,18 euro estereoko; beste material batzuen garraioan, 10,84 euro tonako.

a.3) Bidearen luzera bi kilometrotik gorakoa bada: baso aprobetxamenduetan, 8,08 euro estereoko; beste material batzuen garraioan, 12,20 euro tonako.

d) Kasu guztietan fidantza 500 eurokoa izango da gutxienez.

**3. artikulua. Tarifak.**

Auzo bideak eta baso bideak baso aprobetxamenduetarako edo irabazteko asmoko beste jardun batzuetarako modu berezian erabiltzeagatik tasa bat ordaindu beharko da; irizpide hauek aplikatuko dira:

a) Bidearen luzera kilometro batetik gorakoa ez bada: baso aprobetxamenduetan, 0,18 euro estereoko; beste material batzuen garraioan, 0,28 euro tonako.

b) Bidearen luzera kilometro batetik bi kilometrora artekoa bada: baso aprobetxamenduetan, 0,26 euro estereoko; beste material batzuen garraioan, 0,39 euro tonako.

c) Bidearen luzera bi kilometrotik gorakoa bada: baso aprobetxamenduetan, 0,29 euro estereoko; beste material batzuen garraioan, 0,44 euro tonako.

Amurrio, 2013ko abenduaren 30a.– Alkatea, JOSUNE IRABIEN MARIGORTA.

a.3) Para caminos cuya longitud sea de más de dos kilómetros: 2,08 euros/estéreo para los aprovechamientos forestales o 3,15 euros/tonelada para el transporte de otro tipo de material.

b) Cuando se trate de explotación de caminos de firme pedregoso el importe se determinara de la siguiente forma:

a.1) Para caminos cuya longitud sea de un kilómetro o menos: 2,50 euros/estéreo para los aprovechamientos forestales o 3,78 euros/tonelada para el transporte de otro tipo de material.

a.2) Para caminos cuya longitud sea hasta dos kilómetros y mayor de uno: 3,33 euros/estéreo para los aprovechamientos forestales o 5,03 euros/tonelada para el transporte de otro tipo de material.

a.3) Para caminos cuya longitud sea de más de dos kilómetros: 3,75 euros/estéreo para los aprovechamientos forestales o 5,66 euros/tonelada para el transporte de otro tipo de material.

c) Cuando se trate de explotación de caminos de firme estabilizado el importe se determinara de la siguiente forma:

a.1) Para caminos cuya longitud sea de un kilómetro o menos: 5,38 euros/estéreo para los aprovechamientos forestales o 8,13 euros/tonelada para el transporte de otro tipo de material.

a.2) Para caminos cuya longitud sea hasta dos kilómetros y mayor de uno: 7,18 euros/estéreo para los aprovechamientos forestales o 10,84 euros/tonelada para el transporte de otro tipo de material.

a.3) Para caminos cuya longitud sea de más de dos kilómetros: 8,08 euros/estéreo para los aprovechamientos forestales o 12,20 euros/tonelada para el transporte de otro tipo de material.

d) En cualquier caso, se establece una fianza mínima de 500 euros.

**Artículo 3.- Tarifas.**

Se establece una tasa por el uso especial de los caminos vecinales o pistas forestales con el objeto de realizar aprovechamientos forestales u otros de carácter lucrativo, de acuerdo con los siguientes criterios:

a) Para caminos cuya longitud sea de un kilómetro o menos: 0,18 euros/estéreo para los aprovechamientos forestales o 0,28 euros/tonelada para el transporte de otro tipo de material.

b) Para caminos cuya longitud sea hasta dos kilómetros y mayor de uno: 0,26 euros/estéreo para los aprovechamientos forestales o 0,39 euros/tonelada para el transporte de otro tipo de material.

c) Para caminos cuya longitud sea de más de dos kilómetros: 0,29 euros/estéreo para los aprovechamientos forestales o 0,44 euros/tonelada para el transporte de otro tipo de material.

En Amurrio, a 30 de diciembre de 2013.– La alcaldesa, JOSUNE IRABIEN MARIGORTA.

## AMURRIO

6421

**Behin betiko onartzea animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen udal ordenantzaren bigarren aldaketa. 11216E126 esp.**

Amurrioko Udalak 2006ko maiatzaren 25ean onartu zuen animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen udal ordenantza zeinen testua 2006ko urriaren 20ko ALHAOn (121 zk.) argitaratu baitzen.

Ordenantza indarrean sartu ondoren, haren lehenengo aldaketa egin zen 2012ko urtarrilaren 26an (2012ko apirilaren 25eko ALHAOn —47 zk.—).

Harrezkero, udalbatzak, 2013ko urriaren 3ko osoko bilkuran, hasierako onarpena eman zion ordenantza horren bigarren aldaketari. Aldaketa hori jasotzen duen erabakia hogeita hamar (30) egunez jarri zen jendaurrean, 2013ko urriaren 28ko ALHAOn (123 zk.) argitaratu zen iragarkiaren bidez.

Jendaurrean egon zen bitartean alegaziorik aurkeztu ez denez, eta udalbatzaren 2013ko urriaren 3ko erabakiak xedapenen zatiko hirugarrenean xedatzen zuenez “jendaurrean dagoen bitartean erreklamaziorik aurkezten ez bada, aldaketa hori behin betiko onartutzat joko da, indarrean jartzeko ALHAOn argitaratu beharra gorabehera”,

## AMURRIO

6421

**Aprobación definitiva de la segunda modificación de la ordenanza municipal reguladora de la tenencia y protección de animales. Expte. 11216E126.**

El Ayuntamiento Pleno de Amurrio, con fecha 25 de mayo de 2006, aprobó la Ordenanza Reguladora de la tenencia y protección de animales, cuyo texto, se publicó en el BOTHA nº 121, de 20 de octubre de 2006.

Tras la entrada en vigor de la Ordenanza, se llevó a cabo una primera modificación de la misma en fecha 26 de enero de 2012 (BOTHA nº 47 de 25 de abril de 2012).

Posteriormente, por acuerdo plenario de 3 de octubre de 2013, se aprobó inicialmente la segunda modificación de la citada Ordenanza, y se sometió a información pública por plazo de treinta (30) días, mediante la publicación del correspondiente anuncio en el BOTHA nº123, de 28 de octubre de 2013.

Transcurrido el periodo de información pública sin que se hayan presentado alegaciones, y habida cuenta de que el acuerdo plenario de 3 de octubre de 2013 establecía en su apartado dispositivo tercero que “De no formularse reclamaciones durante el trámite de información pública, se considerará aprobada definitivamente la presente

apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 70.2 artikuluan, 65.2 artikuluarekin lotutakoari dagokionez, xedatzen duenarekin bat etorriz, argitaratu egiten da aipatutako aldaketa, idazkera honekin:

**28.-artikulua.- Arau hausteak.**

1.- Arau hauste arintzat joko dira:

a) Ordenantza honek ezarritako debeku eta betebeharrak ez gordetzea, baina higienearen aldetik edota hiritarren segurtasun edota lasaitasunaren aldetik ondorio larririk ez badu.

b) Erroldan identifikaturik ez dauden lagun egiteko animaliak izatea, erroldako identifikazioa beharrezkoa denean.

c) Animaliak garraiatzea, ordenantza honetan ezarritakoa bete gabe.

d) Animaliak behar bezala zaindu eta artatu ezin diren lekuetan edukitzea.

e) Bide eta gune publikoetan eta higiezin kolektiboen alde komunetan txakurrak jabearen edo edukitzailearen kontrolik gabe ibiltzea, animaliaren ezaugarrietarako kate edo uhal egokiarekin eutsi gabe, edo uhal hori bi metrokoa baino luzeagoa izan.

f) Bide eta gune publikoetan eta higiezin kolektiboen alde komunetan txakurrak jabearen edo edukitzailearen kontrolik gabe egon edo ibiltzea.

g) Animaliei tratu txarra ematea edo haien izaerari ez dagozkion jarrerak edo jokaerak izatera behartzea.

h) AIEOri ez jakinaraztea.

i) Ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzkoak, 3. artikuluan jasotakoarekin bat, txakurren erroldako izen ematea egitea eta/edo bertan izandako aldaketak ez jakinaraztea.

2.- Arau hauste larritzat joko dira:

a) Ordenantza honek ezarritako debeku eta betebeharrak ez gordetzea, higienearen aldetik edota hiritarren segurtasun edota lasaitasunaren aldetik ondorio larriak baditu.

b) Animaliak beharrezko janari, edari eta osasun laguntzarik gabe izatea edo euren beharrizan fisiologiko eta etologikoetarako, guneari zein higieniko-sanitarioei dagokienez, egokiak ez diren instalazioetan edukitzea.

c) Animaliak esterilizatzea, mutilatzea edo sakrifikatzea, albaitariaren kontrolik gabe edo animaliak babesteko legeak eta garatzeko arauek ezarritakoaren aurka jokatuz, bereziki, ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuaren 9. artikuluak dioenaren aurka jokatuz.

d) Ez txertatzea edo nahitaezko tratamenduak ez egitea.

e) Animaliak saltzea horretarako baimenik izan gabe.

f) Animaliei tratu txarra ematea edo eraso egitea, beharrik gabe oinazeak eraginez, zaurituz edo mutilatuz.

g) Animaliei beharrezkoak ez diren oinaze edo kalteak eragin diezazkieketen substantziak ematea, zuzenean nahiz janarien bitartez.

h) Behar besteko ardura ez izatea kalteak eragin ditzaketen animaliak zaindu eta gordetzeko orduan edo arau hauste arina egin izana, epai irmoa tarteko zehapena eragin dutena, zehapen espedienteari hasiera eman aurreko bi urteetan zehar, hain zuzen, 28.1.f) artikuluan xedatutakoetako bat.

i) Albaitaritzako sorospen egokirik ez ematea agerikoak eta larriak diren minak eta oinazeak dituzten animaliei.

j) Animaliei beharrezko administrazio baimenik ez duten ikuskizunetan parte harraraztea.

k) Ebazpen irmoa tarteko zehapena jaso duten hiru arau hauste arin egin izana, zehapen espedienteari hasiera eman aurreko bi urteetan.

l) Ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuak, azalerako metro koadro bakoitzean txakurrak edukitzearen ratioari buruzkoak, 5.1 eta 2. artikuluan ezarritakoa, bai eta artikulu horretan aipatutako ibilgailu eta lokaletan txakurrak sartu eta egoteari buruzkoak ere, ez betetzea.

modificación, sin perjuicio de la necesaria publicación en el BOTHA para su entrada en vigor, de conformidad con los previsto en el artículo 70.2 en relación con el 65.2 de la LRBRL", procede la publicación de la segunda modificación, con la siguiente redacción:

**Artículo 28.- Infracciones.**

1.- Se considerarán infracciones leves:

a) Las inobservancias de las prohibiciones, deberes y obligaciones contenidas en esta Ordenanza que no tengan trascendencia grave para la higiene, y/o seguridad y/o tranquilidad ciudadanas.

b) Poseer animales de compañía sin identificación censal, cuando la misma fuera exigible.

c) El transporte de animales con incumplimiento de lo establecido en la presente Ordenanza.

d) La tenencia de animales en lugares donde no pueda ejercerse sobre ellos la adecuada atención y vigilancia.

e) Que en las vías y espacios públicos, así como en las partes comunes de los inmuebles colectivos, los animales de la especie canina vayan bajo control de su dueño o poseedor sin estar sujetos mediante una cadena o correa adecuada a las características del animal y con una longitud máxima de dos metros.

f) Que en las vías y espacios públicos, así como en las partes comunes de los inmuebles colectivos, los animales de la especie canina se encuentren o anden sueltos y sin el control de su dueño o poseedor.

g) Someter a los animales a trato vejatorio o a la realización de comportamientos o actitudes impropias de su condición.

h) La falta de comunicación al REGIA

i) A de la identificación censal y/o de las variaciones en la identificación censal de los perros contenidas en el artículo 3º del Decreto 101/2004, de 1 de junio, sobre tenencia de animales de la especie canina en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.- Se considerarán infracciones graves:

a) Las inobservancias de las prohibiciones, deberes y obligaciones contenidas en esta Ordenanza que tengan trascendencia grave para la higiene, y/o seguridad y/o tranquilidad ciudadanas.

b) El mantenimiento de los animales sin la alimentación, bebida y asistencia sanitaria necesarias o en instalaciones inadecuadas a sus necesidades fisiológicas y etológicas tanto en espacio como en el aspecto higiénico-sanitario.

c) La esterilización, la práctica de mutilaciones y el sacrificio de animales sin control veterinario o en contra de lo establecido en la Ley de Protección de los Animales y normas de desarrollo, especialmente el artículo 9 del Decreto 101/2004, de 1 de junio.

d) La no vacunación o la no realización de tratamientos obligatorios.

e) La venta de animales no autorizada.

f) Maltratar o agredir a los animales causándoles sufrimientos innecesarios, lesiones o mutilaciones.

g) Suministrar a los animales, directamente o a través de los alimentos, sustancias que puedan causarles sufrimientos o daños innecesarios.

h) No mantener la debida diligencia en la custodia y guarda de animales que puedan causar daños, o haber cometido una infracción leve, con imposición de sanción por resolución firme, de las tipificadas en el art. 28.1.f) durante los dos años anteriores al inicio del expediente sancionador.

i) No prestar a los animales asistencia veterinaria adecuada ante dolencias o sufrimientos graves y manifiestos.

j) Hacer participar a los animales en espectáculos carentes de la correspondiente autorización administrativa.

k) La comisión de tres infracciones leves, con imposición de sanción por resolución firme, durante los dos años anteriores al inicio del expediente sancionador.

l) El incumplimiento de lo establecido en el artículo 5.1 y 2 del Decreto 101/2004, de 1 de junio, sobre la ratio de tenencia de perros por metros cuadrados de superficie y sobre la entrada y permanencia de perros en los locales y vehículos determinados por el mencionado artículo.

m) Ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuko 7. artikuluan animaliak edukitzeko baldintza berezietara behartutako txakurrentzat ezarritako baldintza bereziak ez betetzea.

n) Animaliak aldi batez eduki, hazi edo saltzeko gordetzen dituzten establezimenduek horretarako urriaren 29ko 6/1993 Legeak, animaliak babestearenak, edo hura garatzeko arauek, bereziki, apirilaren 11ko 81/2006 Dekretuak, gune zoologikoenak, ezartzen dituzten betekizun eta baldintzetako edozein ez betetzea.

• Dekretuaren 7. artikuluan aitatutako erregistro liburutik ez edukitzea.

• Erregistro liburuak guztiz bete gabe edo datu batzuen faltan edukitzea.

• Animalia espezien salmenta, edukitzea, trafikoa, merkaturatzea eta erakustaldia CITES delako araudiak eta irailaren 16ko 1881/1994 Errege Dekretuak xedatutakoaren kontra.

• Erregistroko inskripziorik edo funtzionatzeko dagokion baimena ez izatea.

• Zentroan edo establezimenduan egindako aldaketak egiteko baimenik ez izatea edo erregistroan horien berri ez ematea.

• Ikuskatzeko lan ofizialak egin daitezen ez uztea, horiek burutzeko oztopoak jartzea edo ez laguntzea.

3.- Arau hauste oso larritzat joko dira:

a) Animaliak akabatzea, eraso eginda nahiz substantzia toxikoak emanez

b) Lagun egiteko edo etxeko animalia bazterrera uztea.

c) Animaliekiko krudelkeria nahiz tratu txarra edo haien oinazea tarteko deneko eszenarik filmatzea.

d) Baimendutako ikuskizunetan parte hartzen duten animaliei honakoak ematea: anestesiak, drogak eta bestelako produktuak haien mantsotasuna, errendimendu fisikoa edo bere izaerari ez dagokion beste edozein portaera lortzeko xedez.

e) Txakur arraza arriskutsuak haztea nahiz gurutzatzea.

f) Bide eta gune publikoetan janari pozoituak uztea.

g) Animaliei debekatutako ikuskizunetan parte harraraztea.

h) Ebazpen irmoa tarteko zehapena jaso duten hiru arau hauste larri egin izana, zehapen espedienteari hasiera eman aurreko bi urteetan.

**36. artikulua.- Zigorrak.**

1.- Aurreko idatz zatian adierazitako arau hausteei dagozkien isunak hauek izango dira:

- Arau hauste arinei, 150,25 eurotik 300,51ra bitartekoa.
- Arau hauste larriei, 300,52 eurotik 2.404,05era bitartekoa.
- Arau hauste oso larriei, 2.404,06 eurotik 15.025,30era bitartekoa.

2.- Zehapenen zenbatekoak urtero eta automatikoki gaurkotuko dira kontsumorako prezioen adierazlearen arabera, adierazle hori aurreko urteko zehapenen zenbatekoei aplikatuko zaielarik.

**43. artikulua.- Zehapenak.**

1.- Aurreko artikuluan adierazitako arau hausteak 3.005,06 eurotik 15.025,30era bitarteko isunarekin zehatuko dira, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 37.1 artikuluak xedatutakoaren arabera graduatuko.

2.- Zehapenen zenbatekoak urtero eta automatikoki gaurkotuko dira kontsumorako prezioen adierazlearen arabera, adierazle hori aurreko urteko zehapenen zenbatekoei aplikatuko zaielarik.

Ordenantza hau aldatzea behin betiko onartzen duen erabakiaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluak xedatutakoarekin bat etorriz. Hori guztiak ez dio eragotziko egoki jotzen den beste edozein errekurtso aurkeztea.

Amurrio, 2013ko abenduaren 17a.– Alkatea, JOSUNE IRABIEN MARIGORTA.

m) El incumplimiento de las condiciones especiales impuestas a los perros sometidos a condiciones especiales de tenencia por el artículo 7 del Decreto 101/2004, de 1 de junio.

n) El incumplimiento, por parte de los establecimientos, de las condiciones para el mantenimiento temporal de animales, cría o venta de los mismos, cualesquiera de los requisitos y condiciones establecidas en la Ley 6/1993, de 29 de octubre, de Protección de los Animales o en sus normas de desarrollo y, en particular, conforme al Decreto 81/2006, de 11 de abril, de Núcleos Zoológicos:

• La carencia del libro de Registro a que se refiere el artículo 7 del Decreto.

• La posesión de Libros de Registro incompletos o con ausencia de datos.

• La venta, tenencia, tráfico, comercio y exhibición de especies animales con incumplimiento de la normativa CITES y del Real Decreto 1881/1994, de 16 de septiembre.

• Carecer de la inscripción registral o la correspondiente autorización de funcionamiento.

• No contar con la correspondiente autorización de modificación o no comunicar al Registro los cambios introducidos en el centro o establecimiento.

• No permitir, dificultar o no colaborar en los trabajos oficiales de inspección.

3.- Se considerarán infracciones muy graves:

a) Causar la muerte a los animales mediante actos de agresión o suministro de sustancias tóxicas.

b) El abandono de un animal doméstico o de compañía.

c) La filmación de escenas con animales para cine o televisión que conlleven crueldad, maltrato o sufrimiento no simulado.

d) Suministrar a los animales que intervengan en espectáculos permitidos anestesias, drogas y otros productos con el fin de conseguir su docilidad, mayor rendimiento físico o cualquier otro fin contrario a su comportamiento natural.

e) La cría o cruce de razas caninas peligrosas.

f) Depositar alimentos emponzoñados en vías y espacios públicos.

g) Hacer participar a los animales en espectáculos prohibidos.

h) La comisión de tres infracciones graves, con imposición de sanción por resolución firme, durante los dos años anteriores al inicio del expediente sancionador.

**Artículo 36.- Sanciones.**

1.- Las infracciones señaladas en el artículo anterior llevarán aparejadas las siguientes multas:

- Infracciones leves desde 150,25 euros a 300,51 euros
- Infracciones graves desde 300,52 euros a 2.404,05 euros.
- Infracciones muy graves desde 2.404,06 euros a 15.025,30 euros.

2.- Las cuantías de las sanciones serán anual y automáticamente actualizadas con arreglo al índice de precios al consumo, el cual se aplicará sobre la cuantía de la sanción del año anterior.

**Artículo 43.- Sanciones.**

1.- Las infracciones señaladas en el artículo anterior se sancionarán con multa de 3005,06 euros a 15.025,30 euros que se graduará conforme a lo dispuesto en el artículo 37.1 de la Ley 8/1997, de 26 de junio.

2.- Las cuantías de las sanciones serán anual y automáticamente actualizadas con arreglo al índice de precios al consumo, el cual se aplicará sobre la cuantía de la sanción del año anterior.

Contra la aprobación definitiva de modificación de la presente Ordenanza se podrá interponer por los interesados recurso contencioso– administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente al de la publicación de este anuncio, de conformidad con el artículo 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa. Todo ello sin perjuicio de que pueda ejercitar cualquier otro recurso que estime pertinente.

Amurrio, 17 de diciembre de 2013.– La alcaldesa, M. JOSUNE IRABIEN.